BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

2448

EBAZPENA, 2014ko maiatzaren 12koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinen bidez Ogasun eta Finantzako sailburuari eskuordetzen baitzaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren mendeko administrazio-zentroetako posta-zerbitzuak 2014 eta 2015ean kontratatzeko eskumena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio-araubidea onartzen duen ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren V. kapituluan eta lehen xedapen gehigarriko 2. paragrafoan ezarritakoarekin bat etorriz, eta Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen dituen apirilaren 9ko 172/2013 Dekretuko 12.d) artikuluaren arabera, Baliabide Orokorren Zuzendaritzari dagokio eskuratze zentralizatuko ondasun eta zerbitzuak eskuratzea, Baliabide Orokorren Zuzendaritzari egotzitako erabilera orokorreko arlo edo zerbitzuen kudeaketa zentralizatua duten eraikinetan.

172/2013 Dekretuaren 12 a) artikuluak, halaber, zuzendaritza horri ematen dio eskuratze zentralizatua duten ondasunak eta zerbitzuak kontratatzeko prozeduren garapen-proposamena.

Egun, uste da posta-zerbitzuak era zentralizatuan kontratatzeak zerbitzuen hobekuntza eta gastu publikoa arrazionalizatzea dakarrela.

136/1996 Dekretuaren 19. artikuluak aukera ematen du Baliabide Orokorren Zuzendaritzaren eskumenak kudeaketa zentralizatukoak ez diren beste eraikin batzuetara hedatzeko. Hedapen hori gauzatuko da hitzarmen bidez, edo administrazio-klausula zehatzen pleguetan aurreikuspen berariazkoa ezarriz, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean jasotako formulen bidez.

Posta-zerbitzuak –lehen aipatu eremuan– era zentralizatuan kontratatu ahal izateko formularik egokiena Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 13.1 artikuluan eskumenen eskuordetzeetarako ezarritakoa da, honako hau xedatzen baitu:

«1.– Herri-administrazioetako organoek beste organo batzuei beren eskumenak eskuordetzean eman diezazkiekete, baldin eta organo horiek administrazio berekoak badira –nahiz eta bata bestearen mendekoak ez izan– edo administrazio horiei lotuta edo administrazio horien mendean dauden zuzenbide publikoko erakundeetakoak badira».

Hortaz, 192/2013 Dekretuko 3,2.f) artikuluak kontratazioaren arloan Ogasun eta Finantzako sailburuari ematen dizkion eskumenen arabera, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren urriaren 13ko 3/2001 Legearen 10.2.d) artikuluan ezarritakoarekin eta Lanbide erakunde autonomoaren Estatutuak onartzen dituen maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren 10.2.d) artikuluarekin bat etorriz, Herri Administrazioen kontratuei buruzko legeek kontratazio-organoei esleitzen dizkieten ahalmen eta eskumenak baliatzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari dagokio. Nolanahi ere, horrek ez du eragotziko Jaurlaritzaren Kontseiluak zenbatekoa dela-eta dagozkion ahalmenak baliatzea, ez eta Euskadiko kanpoko ordezkaritzetako titularrek kontratazio arloan dagozkien ahalmenak baliatzea ere. Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

I.– Ogasun eta Finantzetako sailburuari ematea 2014. eta 2015. urteetan posta-zerbitzua kontratatzeko eskumena (2016. eta 2017. urteetarako luza daitekeena).

Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legeren testu bateginari buruzko irailaren 14ko 3/2011 LEDn aurreikusitako honako arlo hauetara hedatuko da eskuordetzea, betiere arlook kontratuari aplikatu beharrekoak badira:

– Kontratua prestatzea (II. liburua).

– Kontratua esleitzea (III. liburua, I. titulua, I. kapitulua).

– Administrazioaren eskumenak, aldaketa, iraungitze, lagatze eta azpikontratazioa, IV. liburuko I. tituluko I. kapituluan oro har jasotakoak, eta hornidura-kontratuetarako IV. liburuko II. tituluko IV. kapituluan berariaz aurreikusten direnak.

– Kontratua formalizatzea (III. liburua, I. titulua, I. kapitulua).

II.– Organo eskuordetzailearen esku geldituko dira kontratazio organoari dagozkion gainerako eskumenak, eta, bereziki, emandako zerbitzuen burutzapenari onespena ematea eta horien ordainketa agintzea.

III.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da eskuordetze hau indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko maiatzaren 12a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
ADOLFO ALUSTIZA FERNÁNDEZ.

ERANSKINA

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zerbitzu zentralak

Izena	Helbidea	PK	Udalerria
Lanbideren Zerbitzu Zentralak	Jose Atxotegi 1	01009	Vitoria-Gasteiz
Lanbideren Zerbitzu Zentralak, Sestao	Galindo bidea 14, 3. solairua	48910	Sestao
Lanbideren Zerbitzu Zentralak, Sestao	San Martzial 12	20005	Donostia
Lanbideren Zerbitzu Zentralak, Bilbao	Urkijo 36, Bizkaia eraik. 5	48011	Bilbao

Arabako Enpleguko bulegoak:

Izena	Helbidea	PK	Udalerria
Amurrioko Lanbide	Armurulanda Plaza, 4	01470	Amurrio
Laudioko Lanbide	Virgen del Carmen, 25	01400	Laudio
Oyón-Oiongo Lanbide	Giralda, 1	01320	Oyón-Oion
Aguraingo Lanbide	Donibane Plaza, 1	01200	Agurain
Vitoria-Gasteizko San Martingo Lanbide	Pintor Clemente Arraiz, 5 -7	01008	Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Txagorritxuko Lanbide	Jose Atxotegi, 1	01009	Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Zumakerako Lanbide	Zumakera pasealekua, 17-19, behea	01006	Vitoria-Gasteiz

Bizkaiko Enpleguko bulegoak:

Izena	Helbidea	PK	Udalerria
Barakaldoko Beurkoko Lanbide	Bulevar de Beurko, 5	48902	Barakaldo
Barakaldoko Burcenako Lanbide	Munoa, 19	48903	Barakaldo
Basauriko Urbiko Lanbide	Urbi, 5	48970	Basauri
Basauriko Uribarriko Lanbide	Uribarri, 14.	48970	Basauri
Bilboko Mazarredoko Lanbide	Mazarredo zumarkalea, 39	48009	Bilbao
Bilboko Miribillako Lanbide	Saralegi plaza, 3, 4, 5	48003	Bilbao
Bilboko Errekaldeko Lanbide	Jaen, z/g	48012	Bilbao
Bilboko San Inazioko Lanbide	Katalunia, 1-3	48015	Bilbao
Bilboko Santutxuko Lanbide	Santutxu kalea, z/g (49.aren parean)	48004	Bilbao
Bilboko Txurdinagako Lanbide	Julian Gaiarre (atzealdea), 8	48004	Bilbao
Durangoko Lanbide	Zubiaurre, 10 eta 12	48215	Iurreta
Erandioko Lanbide	Educador Hno. Benjamin Plaza, 5	48950	Erandio
Gernika-Lumoko Lanbide	Karmelo Etxegarai, 8-10	48300	Gernika-Lumo
Getxoko Lanbide	Negubide, 1	48930 48992	Getxo
Mungiako Lanbide	Elorduigoitia, 5	48100	Mungia
Ondarroako Lanbide	San Inazio 40	48700	Ondarroa
Portugaleteko Lanbide	Miguel de Unamuno, 37-39	48920	Portugalete
Santurtziko Lanbide	Murrieta hiribidea, 22	48980	Santurtzi
Sestaoko Lanbide	Galindo bidea, 14	48910	Sestao
Zallako Lanbide	Euskadiko plaza, 9	48860	Zalla

Gipuzkoako Enpleguko bulegoak:

Izena	Helbidea	PK	Udalerria
Arrasateko Lanbide	Nafarroa Etorbidea, 12	20500	Arrasate
Azpeitiko Lanbide	Urola, 6	20730	Azpeitia
Beasaingo Lanbide	Gipuzkoa plaza 1, Urbieta eraik.	20200	Beasain
Donostiako Antiguoko Lanbide	Zarautz hiribidea, 58-60	20018	Donostia
Donostiako Groseko Lanbide	Marino Tabuyo, 14	20013	Donostia
Eibarko Lanbide	Bittor Sarasketa, 9	20600	Eibar
Elgoibarko Lanbide	Gabriel Krutzelaegi, 8	20870	Elgoibar
Errenteriako Lanbide	Maurice Ravel, 14 - 16	20100	Errenteria
Irungo Antzarango Lanbide	Antzaran Plaza, 15	20301	Irun
Irungo San Miguelgo Lanbide	Basurko z/g, San Miguel auzoa	20300	Irun
Lasarte-Oriako Lanbide	Donostia Etorbidea, 5	20160	Lasarte-Oria
Lasarte-Oriako Loiolako Lanbide	Inigo de Loiola, 6	20160	Lasarte-Oria
Tolosako Lanbide	Larramendi, 3 B	20400	Tolosa
Zarauzko Lanbide	Araba, 13	20800	Zarautz
Zumarragako Lanbide	Nafarroa Enparantza, 3	20700	Zumarraga